

## 7. gaia aditzondoan azterketa

- **Irakurgaia:** EGLA (20. kapitulua)

### 1. Aditzondoan (adberbioan) arazoa 1

### 2. Aditzondoan (edo adberbioan) sailkapen formalak 2

### 3. Aditzondoan (edo adberbioan) sailkapen semantikoa 2

3.1. Denbora aditzondoak 2

3.2. Leku aditzondoak 3

3.3. Modu aditzondoak 3

3.4. Maila aditzondoak 4

3.5. Iritzi aditzondoak 4

### 1. Aditzondoan (adberbioan) arazoa

- (1) Jon etxe (berri)ra joan zen atzo.
- (2) Jonek laster etxerako erosiko du ordenagailu berria.
- (3) Ikasleak etxerako ariketa amaitu zuen.
- (4) Irtenbide beharbada txukunago horiek ez dira hain txukunak.

➔ liburuaren arabera, *etxera*, *atzo*, *laster* eta *etxerako* (2. adibidean) adberbioak liriteke, baina nabarmena euren artean alde formalak daudela. Bestalde, (3)-ko *etxerako* sintagma “izenlaguna” litzateke EGLA liburuan, baina nabarmena da aurreko *etxerako*-k bezala, [IS + postposizioa] egitura daukala. Azkenik, *beharbada* bezalako iritzi aditzondo batek adjektiboak ere modifikatu ahal ditu.

➔ Beraz, ikasgaian orain arte egin dugun bezala, kategoriak eta funtzioak bereiziko ditugu. Ikuspegi horretatik, liburuan *aditzondo* modura azaltzen direnak dira beste hizkuntzetan adberbiotzat jo ohi direnak, aditza beti modikatzen ez duten arren:

<i>EGLA liburuan</i>	<i>Guk, eskolan</i>
Adberbioak 1. aditzondoak	1. benetako adberbioak (aditzondoak)
2. adizlagunak	2. [IS + dekl.-atzizki] = postposizio-sintagmak

## 2. Aditzondoan (edo adberbioan) sailkapen formalak

► Aditzondo bakunak:

- (5) beti, aspaldi, gero, gaur, ...<sup>1</sup>

► aditzondo eratorriak:

- (6) gizonki, ederki, harrika, aldizka, astiro, berriro, ederto, txarto, isilik, onik, horrela, bestela...  
 (7) aditzondoak sortzeko atzizki ohikoak: *-ki, -ro, -ka, -to, -(r)ik, -la, -ero*

► aditzondo elkartuak:

- (8) a. edonon, edonoiz, edonola...  
 b. nonbait, noizbait, nolabait...  
 c. nonahi edo non-nahi, noiznahi, nolana...

► Jatorriz postposizio-sintagmak > aditzondo bihurtutakoak:

- (9) a. aurren, hemen, han, berriz, gainera, orduan, ...  
 b. alderantziz, ostean, ondoren, agerian, gora, ...

► besterik:

- (10) a. lehenbailehen, batik bat, bat-batean, batez ere...  
 b. kili-kolo, tarteka-marteka, pil-pil, bor-bor(ka), ...

► aditzondoak kategoria aldagaiztat jo ohi dira, baina zenbait deklinabide atzizki hartzen dituzte:

- (11) a. gaur, gaurtik, gaurko, gaurdanik.../bihar, bihartik, biharko  
 b. honela, honelako...  
 c. berandu, beranduago, beranduegi, beranduen /ederto, edertoago, edertoegi, edertoen...

## 3. Aditzondoan (edo adberbioan) sailkapen semantikoa

### 3.1. Denbora aditzondoak

- (12) a. galdetzailearen ingurukoak: *edonoiz, noiznahi, noizbait, inoiz*  
 b. besterik: *agudo, antzina, aspaldi, aurki, bart, behin, berandu, berriki/berriro, dagoeneko, gaur, atzo, beti, bihar, egundaino, etzi, iaz, ja, jadanik, laster, maiz, orain, sarri(tan), orduan, sekula...*
- (13) a. igandero, egunero...

<sup>1</sup> Ez da ahaztu behar, bestalde, adjektibo askok aditzondo erabilera arazorik gabe betetzen duela (ikus 452. or).

- b. noizik behin, noizean behin...
- c. honezkero, horrezkero, harrezkero...

### 3.2. Leku aditzondoak

- (14) a. erakusleen ingurukoak: *hemen, hor, han*
- b. galdetzeileen ingurukoak: *edonon, nonahi, nongura, inon...*
- c. besterik : *gertu, hurbil, urrun, urruti...*
- d. oinarrian postposizioen bat dutenak: *gora, kanpora... (!?)*

### 3.3. Modu aditzondoak

- (15) a. erakusleen ingurukoak: *honela, horrela, hala, ...*
- b. galdetzeileen ingurukoak: *edonola, nolana, inola...*
- (16) moduzko aditzondoak sortzeko atzizkiak:
  - a. *-ki* : ederki, gaizki, poliki, osoki, ... (emankorra da gaur egun)
  - b. *-to* : ederto, txarto, polito
  - c. *-ro* : berriro, argiro, astiro
  - d. *-kiro* : egokiro, emekiro, maitekiro...
  - e. *-ka* : apurka, harrika, bakarka, gutxika...
  - f. *-ik* : alferrik, bakarrik, biluzik, hutsik, ...<sup>2</sup>
  - g. *-ta* : nekatuta, apurtuta, ikusita, ...
- (17) besterik :
  - a. adjektiboak > aditzondo: *arin, gogor, dotore, erraz, aise...*
  - b. instrumentalean oinarritutakoak: *berriz, zinez, buruz, itxuraz...* (hauetariko batzuek oraindik [IS + postp] egiturari modu emankorrean eusten diotela pentsa liteke; beste batzuk, berriz, lexikalizatuta daude)
  - c. oinarrian bestelako postposizioen bat dutenak: *benetan, itsuan.../ gogara, erara.../ gogotik*

---

<sup>2</sup> *-ik* honek, oraindik ere, deklinabide-atzizki modura funtzionatzen du: *bakar-bakarrik, huts-hutsik* esaten dugu, baina ez *\*asti-astiro, \*gaitz-gaizki*, edo *\*eder-ederto*. Beraz, egitura agian postposizio-sintagma batena da, eta ez aditzondo batena.

### 3.4. Maila aditzondoak

• beste aditzondo edo adjektibo batzuk mailakatzeko erabiltzen direnei esaten die EGLA liburuak; baina argi utzi dugunez ikastaroan barrena (cf. 4. gaia), mailakatzaile asko, berez, ez dira aditzondoak:

- (18) a. mailakatzaile-lana egiten duten **aditzondoak**: *biziki, zeharo, txit, guztiz, ondo, ia, kasik, itsuski, gogorki, arras, osoki...*  
b. mailakatzaile-lana egiten duten **adjektiboak**: *oso, izugarri, ikaragarri, itzel, arrunt, aise...*  
c. mailakatzaile-lana egiten duten **zenbatzaileak**: *nahiko, asko, aski, franko, sobera...*

### 3.5. Iritzi aditzondoak

• Hiztunaren jarrera edo iritzia adierazten duten aditzondoei esaten zaie:

- (19) a. *txarra zen, nonbait*  
b. *agian joango naiz*
- (20) a. *menturaz, itxuraz, iduriz, agian, apika, ausaz, beharbada, noski, ...*  
b. *agi danean, agi denez, dirudienez, itxura baten...*  
c. *besterik: behintzat, omen, ote, al, ...*